



## HEZKUNTZA SAILAK AREAGOTU NAHI DITU MURRIZKETAK HELDUEN HEZKUNTZAN

Helduen Zentroetan eraso larria gauzatzeko asmoa bideratzen ari da Hezkuntza Saila. Eufemismo ugari erabiliz (birdimentsionatu, eguneratu, arauak zuzen aplikatu ...) ikastetxe hauetako plantilletan murrizketa latzak inposatu baitu. Lanpostu ugari ezabatzeaz gain, ikastetxe hauek egiten duten eskaintza guztiz mugatu eta oztopatuko da asmo hauek aurrera egiten badute.

STEE-EILAS-ek zentro hauetan hurrengo ikasturtean gauzatuko diren lanpostuen murrizketak gogor salatu nahi ditu, eta Eusko Jaurlaritzari exijitzen dio atzera egin eta maila hauetan egindako eskaintza indartu dezan.

Murrizketa hauek LPZ eta taldeak eratzeko irizpideen aldaketaren ondorioa dira. Hasierako formazioa, alfabetatze DBH-ko graduazioa lortu arte; Unibertsitatera eta Lanbide Heziketarako sarbidea; Gaztelania eta Euskara atzerriarrentzat bideratutako ikasketak dira nagusiki eskaintzen diren ikasketak, baita formazioa osagarriak bideratzen dituztenak ere.

Beraz, krisi ekonomiko eta langabeziako garai latz hauetan gogorki astinduak diren populazio sektoreak dira nagusiki eraso hau jasoko dutenak. Hau guztia kontuan harturik guztiz desegokia da Helduen Hezkuntzaren arloan ere murrizketa gehiago inposatzea. Ezin dugu ahaztu arlo honek duen eragina, batez ere ikasteari utzi zioten eta orain lan espezializazio barik eta langabezia dauden gazteengan. Beste aldetik, integrazeko eta lana lortzeko hizkuntza eta kultura ezagutzea beharrezkoa duten etorkinak ditugu. Eta osatzeko, beste formazio gabe geratu ahal diren beste kolektiboetako pertsonak: etxean lan egiten dutenak, luzaroko langabetuak, adineko pertsonak,... Halako murrizketak gizarteak ezin ditu jasan. Diskurtso bikoitz hipokritak salatu nahi ditugu, are gehiago pertsona ahulenak direnean kaltetzen direnak. Ez al ziren, ba, heziketa eta prestakuntza sendoak etorkizunaren bermea?

Ildo berean argi utzi nahi dugu ez dugula lanpostu gehiago suntsitzea onartuko. Modu bakarra dago bidezko erabakiak hartzeko: atzera egitea eta arlo honetan ere hezkuntza publikoa indartzea.



## EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN QUIERE INTENSIFICAR LOS RECORTES EN LA ENSEÑANZA DE ADULTOS

El departamento de educación va a poner en marcha un ataque sin precedentes a los Centros de Educación de Adultos. Utilizando una serie de eufemismos (redimensionar, actualizar, aplicar la norma,..) el departamento quiere imponer recortes importantes en las plantillas de estos centros. Además de suprimir muchos puestos de trabajo, la oferta educativa se verá fuertemente limitada si esto sigue adelante.

STEE-EILAS denuncia la reducción de plantillas que se va a producir de cara al próximo curso en los centros de EPA y pide al Gobierno Vasco que recule y que refuerce la oferta de estos centros: la formación inicial, desde la alfabetización hasta conseguir la graduación de la ESO; acceso a la universidad y a los Ciclos Superiores de FP, castellano y euskera para personas extranjeras e incluso estudios de formación compensatoria.

Dado el tipo de alumnado que acogen estos centros, nos parece un despropósito que en este momento duro de crisis económica y desempleo se impongan estas restricciones en el ámbito de la Educación de Adultos. No debemos olvidar el papel que juega la misma sobre todo en los colectivos de jóvenes que abandonaron sus estudios y que ahora se encuentran sin habilitación laboral y desempleados. Por otro lado, está el colectivo de emigrantes que necesitan aprender la lengua y la cultura para su integración y su acceso al empleo. Sin olvidar otros colectivos que pueden quedar totalmente desprovistos de formación: amas y amos de casa, desempleados de larga duración, mayores,...

La sociedad ya no puede soportar más este tipo de recortes. Queremos denunciar los discursos doblemente hipócritas, máxime cuando las afectadas son las personas más débiles. ¿No eran acaso la educación y la formación integral garantía de futuro?

En este sentido, queremos dejar claro que no vamos a aceptar la destrucción de más puestos de trabajo. Solo hay una manera de tomar decisiones justas: dar marcha atrás y fortalecer también en este ámbito la educación pública.